



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

**AMOREBIETA-ETXANOKO UDALEKO "GIZARTE ETA HEZKUNTZA
ARLOAN ETA ARLO PSIKOSOSIALEAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA"
ZERBITZUA EMATEKO KONTRATUA PROZEDURA IREKI BIDEZ
ESLEITZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA.**

1.-KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea Amorebieta-Etxanoko Udaleko "gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko programa" aurrera eramateko beharrezko laguntza teknikoa emateko lehiaketa deitzea da.

1.1.-Programaren jasotzaileak

Programan aurreikusitako jardueren jasotzaileak ondokoak dira:

C. Umeak, gazteak eta familia

- 1.- 0-18 Ume eta gazteak, gizarte arrisku egoeran daudenak, moldatu ezin direnak edo babesgabetasun arin edo moderatua dutenak, gizarte eta hezkuntza arloan esku hartuz beraien egoera hobetu daitekeenean.
- 2.- 2.- Beraien kargura gutxienez adingabe bat duten familiak, krisialdian daudenak, familia desegituratuta eta/edo guraso izateko moldatzen ez direnak, gizarte eta hezkuntza arloko laguntzarekin hobetu dezaketenak.
- 3.- Arazorik ez duten familietako adingabeak baina, familiaren, taldearen edo erkidegoaren egitura ezaugarriengatik, arazoak izan ditzateketenak.
- 4.- Era beran, adingabea familiatik bereizteko behin betiko neurriak hartu direnean, familia horietan esku har daiteke, bereziki oraindik familian adingabeak badaude, haurtzarora jagoteko zerbitzu espezializatuek hala eskatuta.

D. Bazterkeria egoeran dauden pertsonak

Bizitza sozialeko garapen arlo desberdinetan desabantaila edota gizarte ahultasuneko hainbat eragile pilatu edota elkartzearen ondorioz, gizarte bazterkeria egoeran dauden pertsona edo familiak.



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

Aipatu bizitza sozial horrez gain, desabantaila edo ahultasuna hainbat arlotik etor daiteke: harremanetan eta elkarbizitzan, arlo pertsonalean, osasunean, gizarte parte-hartzean eta gizarte eskubideak eskuratzean, etxebizitza zein arlo ekonomikoan.

1.2.-Helburuak

- 1.- Babesgabetasun arriskuan egon daitezkeen adingabe eta familiei gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean arreta eman, baita gizarte bazterkeria egoeran egon daitezkeen helduei ere.
- 2.- Ume eta gazteei eragin diezaieketen arrisku faktoreak ekidin, ez moldatzera eraman dezaketenak edota babesgabetasun edo abandonu egoerak sortaraz ditzaketenak ekidinez, baita gizarte bazterkeria egoeran egon daitezkeen helduei ere.
- 3.- Haur eta nerabeen arreta eta babes arloan dauden beharrianak antzeman, baloratu eta diagnostikatu, baita helduenak ere, gizarte bazterkeria egoeran.
- 4.- Oinarrizko gabeziak dituzten ume, gazte eta helduak babestu, gabezia hauek izaera pertsonalekoak, familia, hezkuntza, afektibitate edo dena delako arlokoak direlarik. Gizarte eta hezkuntza arloan esku hartuko da bai helduarengan, bai adingabearengan eta baita bere familiarengan.
- 5.- Pertsonen inguruan gizarte eta hezkuntza arloan lan egin, gizarte bazterkeria arriskuan dauden adingabeen, familien eta helduen garapenerako esparru egoki bat bermatzeko
- 6.- Adingabeak, beraien familiak eta gizarte bazterkeria arriskuan dauden helduak sustatu, babes, orientazio eta aholkularitza neurriak emanez, helduei progresibo bat, integrazio gradu handiago bat, komunitatean parte-hartze egoki bat eta bizitza kalitatearen hobekuntza bat ahalbideratuz.
- 7.- Adingabeei, beraien familiei zein helduei baliabide pertsonalak, erkidegokoak eta ingurumenekoak sustatu esparru desberdinetan sortarazitako arazoak konpontzeko.
- 8.- Adingabeari, bere familiari eta helduari bere buruaz eta inguruko egoeraz jabeturik egoteko bitartekoak eskaini.
- 9.- Erkidegoko baliabideetarako sarbidea erraztu.

1.3.-Udal gizarte zerbitzuko langileen funtzioak



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

Lanaren oinarri diren funtzio nagusiak ondokoak dira:

- Zuzeneko arreta
- Prebentzioa
- Bitartekaritza
- Heziketa funtzioa
- Sustapena
- Planifikazioa
- Ebaluazioa
- Koordinazioa

1.3.1 Programaren arduraduna den gizarte langilearen funtzioak:

a.- Herriko adingabeen babesgabetasun eta/edo babesgabetasun arriskuko egoera posibleen gaineko eskariak jaso, baita gizarte bazterkeria egoerak ere. Egoera horiek aztertu eta baloratu eta esku-hartzea orientatu.

b.- EISEko koordinatzaile/gainbegiralearekin koordinatu

c.- Komunikazio bide guztiak zabalik izan bai gizarte langileekin eta gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko taldearekin eta baita zerbitzu bereziekin eta erkidegoko baliabideekin.

1.3.2. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren kasuan, dagokion gizarte langilearen funtzioak.

a.- Programa honi buruzko informazioa, orientazioa eta aholkularitza eman horrela eskatzen duten pertsona, familia eta sareko baliabideak, beraien ustez, programaren onuradun izan badaitezke.

b.- Hezkuntzan esku hartzeko programa erabiltzeko aukerari buruzko erabakiak hartu, hala balitz, hezkuntza proiektuak martxan jartzea erraztuz.

c.- Hezkuntzan esku hartzeko fase guztietan parte hartu edota jarraipena egin.

d.- Bazterkeria arriskuan dauden pertsonen kasuan, laguntza psikosozialaren beharrezana aztertu.

e.- Espedientea zabaldu, jarraipena egin, bidali, eta, hala badagokio, ixtea.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

1.4.- Gizarte eta hezkuntza arloan esku hartzeko taldeko hezitzaileek garatu beharreko berariazko funtzioak:

1.4.1 Gizarte eta hezkuntza arloan esku hartzeko proiektuak.

a.- Bitartekoak eta ingurua ezagutu.

b.- Esku-hartzearen fase guztietan beraien parte-hartzearen ondoriozko funtzioak: Gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartze planen Azterketa/Balorazioa, Planifikazioa, Esku-hartzea, Jarraipena eta Ebaluazioa.

c.- Taldearekin berarekin, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin eta haurtzaro, gazteria eta familia arloan eragina izan dezaketenean bestelako gizarte eragileekin koordinatzearen ondoriozko funtzioak, baita bazterkeria ere.

d.- Familiari, adingabeei eta helduei eskura dauden bitarteko guztiak hurbildu, beraien normalizazio prozesua errazteko.

e.- Eskola baliabideak hurbildu adingabeei eta lan eta prestakuntza bitartekoak helduei eta baita beraien bizi kalitatea hobetzeko eta beraien beharrezan erantzuten lagunduko dieten komunitateko eta sareko baliabideak hurbildu.

f.- Adingabeen edota familiako bestelako kide esanguratsuen zein helduen familia egituraketarako eta/edo egituraketa pertsonalerako oinarrizko ohitura, trebetasun eta eskuduntzak eskuratzearekin zerikusia duten jarduerak garatu.

g.- Erkidegoko harreman eta babes sareetan adingabea, familia eta heldua trebeago moldatzea erraztea.

h.- Adingabeen ardura duten gurasoei gabeziak dituzten arloetan seme-alabak egoki zaintzeko ezagutza eta abileziak eskaintzea eta oinarrizko beharrezan asetzen direla bermatu:

. Beste pertsona batzuekin eta inguruarekin harreman egokiak izan.

. Familia egituraketa egokia izan.

i.- Nerabeak dituzten familietan eta laster seme-alabak nerabezaroan izango dituzten familietan, guraso eta seme-alaben arteko liskarretan bitartekari lanak egin, guraso zein seme-alabekin arazoak konpontzeko estrategiak bilatu eta umeei orientazio eta gida lanak egin.

j.- Kasuari buruzko informazio guztia euskarri informatikoan jaso.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

1.4.2 Taldeko esku-hartzeak adingabeekin

- a.- Adingabeekin taldeko esku-hartze programak diseinatu, prebentzioaren arloan.
- b.- Taldeko esku-hartzeak garatu eta inplementatu (planifikazioa, garapena eta ebaluazioa).
- c.- Koordinazioa taldearekin eta baita oinarrizko gizarte zerbitzuarekin ere.
- d.- Koordinazioa erkidegoko baliabideekin (ikastetxea, aisialdia).

1.5 Gizarte eta hezkuntza arloan esku hartzeko taldeko adingabeen psikologoak garatu beharreko berariazko funtzioak:

II. Kasuen balorazioa, diagnostikoa eta pronostikoa

Balorazio diagnostiko psikosozial bat eman aurkeztutako kasuetan, familiaren egoera bere osotasunean zehazten lagunduko duena, esku hartze guztien hipotesi eta klabeak, gurasoek guraso izateko erakusten duten abilezia eta babes psikosozialetik eta/edo bestelako lurralde edo udal zerbitzuek esku hartu eta/edo igortzeko aukera.

- **Umearen babesgabetasun arriskuaren** balorazio bat egin, adingabearen arrisku maila kontuan hartuz.
- Familian izan daitezkeen **aldaketa aukerei** buruzko pronostikoak egin eta beraien funtzioak egoki betetzeko **berreskuratzeko duten gaitasuna eta familien pronostiko ona**.
- Bere erantzukizunaren eremuan babesgatasun arriskuaren prebentziorako **erabakiak hartzerakoan**, oinarrizko gizarte zerbitzuei lagundu eta lurralde mailako eta izaera espezializatua duten **bestelako zerbitzuetara igortzea**, beharrezkoa denean.

III. Familia eta adingabeei babes psikologikoko zerbitzua

Umeei, nerabeei eta beraien familiei zuzenduta dago, oinarrizko gizarte zerbitzuek bertara bideratuak, **arloan psikosozial eta terapeutikoan esku hartzea** egokia izan daitekeela uste denean. Honekin jarraian adierazten diren arrisku egoerak, babesgabetasuna eta/edo baztertzearekin lotzen diren emozio, jarrera eta faktore kognitiboen eragina eutsi edota konpondu nahi da:



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

- Familiako kideen egoera emozionala edota harreman dinamikak baloratu, berriazko beharrianak antzemateko.
- Esku hartze psikoterapeutikoa eskaini, esku hartzeen eboluzioa ebaluatuz eta dagozkion txostenak eginez.
- Tartean dauden faktore emozionalak landuz egoerari eutsi, eragindako kalte posiblea landu, eutsi eta konpontzera zuzendutako babes psikosoziala eskainiz.
- Bizi-esperientziak bideratu, arazoak konpondu eta maila pertsonalean, familian eta maila sozialean bere garapena ahalbideratzen duten bitarteko eta trebetasunak eskuratu.
- Arrisku eta gizarte bazterkeria eragiten eta luzatzen duten beste sistemen familia harreman eta egiturak aldatu.

1.6. Koordinatzailearen funtzioak

a.- Esku hartze proiektuen garapenean gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko taldeko kideak gainbegiratu eta orientazioa eman.

b.- Programaren arduradunak hala eskatuta, gizarte eta hezkuntza arloan esku hartzeko taldearen bileretan parte hartu arrisku egoerak baloratzeko eta esku hartzeak diseinatzeko.

c.- Programaren ardura duen gizarte langilearekin koordinatu.

d.- EISEko komunitate jardueren proposamenak planifikatu, gainbegiratu eta ebaluatu.

1.7.-Jarduera eremu materiala eta esku hartze arloak

Izaera orokorreko esku-hartze bat egin nahi da erabiltzaileekin, hau da, norbanakoa bere osotasunean kontuan hartuta: garapen psikologikoa, harremanak, prestakuntza eta familia. Horregatik, funtsean ondoko arloetan esku hartuko da bereziki: pertsonala, osasunerako heztea, adingabeentzat eskola prestakuntza, helduentzat lanbide heziketa, elkarbizitza eta familia harremanak, etxeko antolakuntza, aisialdia eta gizarte inguruarekin harremanak.

Erkidegoan eta erkidegoarentzat lan egiteko beharrezana argia da eta erakunde guztiei dagokie, arrisku egoerak sortzen dituzten prozesuen prebentzioan eta/edo hauek arintzeko lan egitea.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

1.8.- Eremu geografikoa

Taldeak Amorebieta-Etxanoko herritarren beharrezanean erantzungo die eta udal honen Gizarte Ekintza Saileko bulegoetan lan egingo du.

1.9.-Gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko alde metodologiko orokorrak

Berriazko metodologiari dagokionez, ondokoak kontuan hartuko dira:

1.- Esku-hartze motak, norbanaka zein taldeka, fase desberdinetan bereizi beharko dira: balorazio diagnostikoa, gizarte eta hezkuntza arloko proiektua, jarraipena eta esku hartzearen amaiera.

2.- Kontratututako prestazioen artean, ondokoak aurkitzen dira:

2.1.- Barne koordinazioan taldearen egitura eta antolaketa ezarri, kideen arteko aldizkako bilerak zehaztuz.

2.2.- Informazio bideak, orientazioa, aholkularitza, kudeaketa, tratamendua eta heltzen diren edo taldean antzematen dituen arazoek jarraipena, bai norbanako mailan zein familia mailan.

2.3.- Sareko baliabideekin koordinazio bideak ezarri.

2.4.- Proposamenak eta proiektuak burutu.

2.5.- Burututako lanaren jarraipen eta ebaluazio egoki baterako administrazioak eskatutako agiriak prestatzea.

2.6.- Burututako jardueri buruz aldizkako ebaluazioa, gutxienez urtean behin (hurrengo urteko lehenengo bi hilabeteetan) aurkeztuko den ebaluazioaren bidez, azterketa kualitatibo eta kuantitatibo bat egin eta jarritako helburuetatik abiatuz, burututako jardueren arrakasta ebaluatuz.

2.7.- Gutxienez sei hilabeterik behin, enpresak izendatzen duenaren eta Udaleko Gizarte Ekintza Saileko arduradunaren arteko bilera bat egin.

2.8.- Proiektuaren fase guztietan genero ikuspegia txertatu.

2.9.- Kontratua amaitzerakoan, adjudikaziodun enpresak sortutako espediente guztiak emango dizkio Udaleko Gizarte Ekintza Sailari.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

2.10.- Jarduerak burutzeko, hauek garatzerakoan gerta daitezkeen arriskuak, istripuak eta erantzukizun zibila estaliko dituen aseguru bat eskatuko zaio kontratatzen duen enpresari.

2.11.- Adjudikaziodun enpresak bere gain hartzen du Udaleko Gizarte Ekintza Sailak une bakoitzean ezarritako aldaketak onartu behar izatea.

1.10.- Gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko taldearen giza baliabideak

1.10.1 Adingabeekin gizarte eta hezkuntza arloan esku hartzea

Amorebieta-Etxanon haurtzaro, gazteria eta familiarekin gizarte eta hezkuntza arloan esku hartzeko beharrezko laguntza teknikoa emango duen adjudikaziodun enpresak, lanaldi oso bat eta astean 20 orduko zerbitzu bat emateko beharrezkoa den/diren langileak izan beharko ditu. Ordutegi malgua beharko da, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin koordinatuz.

Gizarte arloan esku hartzeko sektorearen hitzarmen kolektiboa. Hitzarmen zk.: 4806185.

Bi langileak euskaldunak izan beharko dira, Gizarte-Hezkuntzan tituludunak izango dira edota, osterantzean, Gizarte-laneko edo Psikologiako unibertsitate tituludunak eta arriskuan dauden haurtzaro, gazteria eta familiekin lan egiten duten programetan esperientzia izan beharko dute. Era berean, gizarte eta hezkuntza arloan esku hartzeko teknikak ezagutu behar dituzte.

1.10.2. Esku-hartze psikosoziala

Amorebieta-Etxanon haurtzaro, gazteria eta familiarekin arlo psikosozialean esku hartzeko beharrezko laguntza teknikoa emango duen adjudikaziodun enpresak astean 15 orduko zerbitzu bat emateko beharrezkoa den langilea izan beharko du eta hau euskalduna izan beharko da. Ordutegi malgua beharko da, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin koordinatuz. Gizarte arloan esku hartzeko sektorearen hitzarmen kolektiboa. Hitzarmen zk.: 4806185.

1.10.3. Koordinazioa

Zerbitzu honen koordinazioa eta kasuen gainbegiratzea espezialitate honetako taldeen kudeaketan esperientzia izan eta gizarte eta hezkuntza arloan eta/edo arlo psikosozialean prestakuntza duenak burutuko du.



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

Dedikazioari dagokionez, hilean gutxienez 8 orduz Amorebieta-Etxanoko Nafarroa Zentroko oinarritzko gizarte zerbitzuetan izan beharko da eta kudeaketarako hilean ordu bi beharko dira.

B.- Bazterkeria arriskuan dauden pertsonen esku-hartzea

Amorebieta-Etxanon bazterkeria arriskuan dauden pertsonen arlo psikosozialean esku hartzeko beharrezko laguntza teknikoa emango duen adjudikaziodun enpresak lanaldi erdiko zerbitzu bat emateko beharrezkoa den langilea izan beharko du eta hau euskalduna izan beharko da. Ordutegi malgua beharko da, Oinarritzko Gizarte Zerbitzuekin koordinatuz. Gizarte arloan esku hartzeko sektorearen hitzarmen kolektiboa. Hitzarmen zk.: 4806185.

Langile hau Gizarte-Hezkuntzan tituluduna izango da edota, osterantzean, Bitartekaritza, Gizarte-laneko edo Psikologiako unibertsitate tituluduna eta bazterkeria arriskuan daudenekin lan egiteko programetan esperientzia izan behar du.

1.11.-Kontratistaren betebeharrak.

Amorebieta-Etxanoko Udalak zerbitzu honen eskura jarriko ditu lokalak, ordenagailu bi eta inprimagailu bat. Era berean, lokal hori erabiltzeak sortarazten dituen gastuak ere bere kontura izango dira, hala nola: argia, ura, telefonoa, garbiketa, interneterako lotura, posta elektronikoa...

1.12- Kontratistaren betebeharrak.

Programa onartutako baldintza tekniko, denborazko eta ekonomikoetan garatu. Bitarteko pertsonal, tekniko eta materialak eskani (bulegoko materiala, dietak, etab.).

Oinarritzko gizarte zerbitzuek ezarritako jarduera eta prozedura protokoloak errespetatu.

Programaren ebaluaziorako udal zerbitzu teknikoek eskatutakoa informazioa eman, ahoz zein idatziz.

Burututako lanaren urteko memoria egin eta EAeko hizkuntza ofizialetan aurkeztu.

Kontratutako zerbitzuaren faktura bat aurkeztu hilero.

Jardueren gastuen memoria tekniko eta ekonomiko bat aurkeztu, EAeko hizkuntza ofizialetan.

Esku-hartzearen kalitatea hobetu asmoz, oinarritzko gizarte zerbitzuek prestakuntzarako eta gainbegiratzeko egiten dituzten proposamenetan parte hartzeko aukera.



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

Edozein gorabehera lehenbailehen jakinarazi Gizarte Zerbitzuen zuzendaritzari, hala nola, taldeko kideen aldi baterako bajak, oporrak, lizentziak edo baimenak zein behin betiko bajak. Gaixotasun edo istripuaren ondoriozko bajak gehienez ere baja hasi zenetik astebeteko epean bete beharko dira. Behin betiko bajak aldiz, langileak udaletxean lan egin zuen azkeneko egunetik zenbatzen hasita gehienez ere hamabost egun naturaleko epean bete beharko dira. Betebehar hauek beteko ez balira, hileko fakturan zerbitzuaren kostua zati proportzionalan jaitsiko da eta, Udalak hala uste badu, kontratua hutsaltzeko arrazoa izan daiteke.

2.-KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratuaren prezioa urteko 100. 000,- €-koa izango da gizarte eta hezkuntza arloko zerbitzurako eta urteko 18. 000,- €-koa zerbitzu psikosozialerako. Lizitatuzaileek zenbateko hauek hobetu ditzakete.

Prezio honen barruan dago emandako zerbitzu osoaren ordainketa, baita taldeak egin beharreko gastu guztiak ere (garraioa, joan-etorriak, dietak, etab.), zein komunitate jarduerari dagozkienak, prebentzio tailerrak eta ekintzak familiekin. Urteko 4.000 euroko gastu aurreikuspen bat dago, gizarte eta hezkuntza arloko babesari lotua.

Jarduerengatiko gastuak zuritzeko sei hilabetero laburpen bat aurkeztuko da, jardueraren garapena eta dagozkion gastuak adieraziz.

Pertsonaleko gastuak hileroko zuri beharko dira. Horretarako, taldeko kideen nominen kopiak eta bien TC1 eta TC2 agiriak aurkeztu beharko dira.

Amorebieta-Etxano, 2017ko martxoaren 2a



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

ZERBITZUAREN ADJUDIKAZIODUNAK SUBROGATU BEHARREKO LANGILEEN ZERRENDA

HAURTZARO, GAZTERIA ETA FAMILIAREKIN GIZARTE ETA HEZKUNTZA ARLOAN ESKU HARTZEKO ZERBITZUA. AMOREBIETA-ETXANOKO UDALA					
GIZARTE SEG.	ANTZINATASUNA	KONTRATU MOTA	ORDUAK ASTEAN	KATEGORIA	LANSARI GORDINA URTEKO
48/1020982093	13/07/2009	MUGAGABEA	LANALDI OSOA	2.TALDEA	25.888,80 €
48/1031291274	26/09/2009	MUGAGABEA	20 ORDU ASTEAN	2.TALDEA	13.806,52 €

HAURTZARO, NERABEZARO ETA FAMILIEI ZUZENDUTAKO ARRETA PSIKOSOZIALEKO ZERBITZUA. AMOREBIETA-ETXANOKO UDALA					
GIZARTE SEG.	ANTZINATASUNA	KONTRATU MOTA	ORDUAK ASTEAN	KATEGORIA	LANSARI GORDINA URTEKO
481015774611	02/01/2012	MUGAGABEA	15 ORDU ASTEAN	1.TALDEA	11.059,20 €

Hitzarmena: Bizkaiko gizarte esku-hartzea.

GIZARTE BAZTERKERIA ARRISKUAN DAUDEN FAMILIETAN ESKU-HARTZEKO ZERBITZUA AMOREBIETA-ETXANOKO UDALA						
NAN	GIZARTE SEG.	ANTZINATASUNA	KONTRATU MOTA	ORDUAK ASTEAN	KATEGORIA	LANSARI GORDINA 2017. URTEA
1606872Q	48/102204356	15/04/2016	OBRAK ETA ZERBITZUAK	15 ORDU ASTEAN	2. TALDEA	10.235,98 €

Hitzarmena: Bizkaiko gizarte esku-hartzea.